

DATUA

9,2

MILIOI PEZETA

Urumea pasealekuan eraikiko diren etxebizitza merkeekin 9,2 milioi pezeta balioko dute. Jakina denez, alde honetan babes ofizialeko 222 etxebizitza eraikiko dira. Eusko Jaurlaritzak espero du 2000. urteko udan bukatuta egotea. Preziorik garestiena 13,4 milioi pezeta izango da. Etxebizitza hauetakoren bat eskatzeko epea hilaren 24an amaituko da. Eskaera telefono zenbaki honetan egin behar da: 90242444.

Ika-mika Udal Liburutegiaren kokapenari buruz

Udal Liburutegiak egoitza berria behar du. Gaur egun Konstituzio plazan dago, baina zahartuta eta leku faltan dagoenez, Udalak kokapen berria bilatu behar dio. Gai honek eztabaida sutsua eragin du aste honetan alderdi politikoan artean.

Ramon Etxezarreta Kultura zinegotziak liburutegia

Udaletxe azpikaldera eramateko proposamena aurkeztu zuen joan den astelehenean, hilak 13. Bertan, mailegu eta kontsulta zerbitzuak eta hemeroteca kokatuko liriteke, besteak beste. Konstituzio plazan, berriz, balio historikoa duten ondasunak gordeko liriteke. Ramon Etxezarretaren ustez, leku hau egokia da, jende asko ibiltzen

baita inguruetan. Egoitza berri hau datorren urrian zabal litekeela zehaztu zuen PSE-EEko zinegotziak.

EA eta PP aurka

Asteartean EA eta PP proposamen honen aurka azaldu ziren. Josu Ruiz EAko zinegotzi eta Turismo arduradunak liburutegiari kokapena bilatzeko plangintzarik ez izatea leporatu zion Etxezarretari. Josu Ruizek gogorazi zuenez, Udal Gobernuak Udaletxe azpikaldea erakusketak egiteko eta asialdirako erabiltzea onartu zuen EAren ekimenez. Kultura Saitetik proposamen gehiegi egiten ari direla kritikatu zuen.

PPko Elena Azpirozek ere ildo bereari eutsi zion. Etengabe proposamenak egitea serioa ez dela adierazi zuen, eta orain, Udaletxe azpialdeko berritze lanak hasiak direla, ezin dela hone-lako proiekturik egin.



Alderdi politikoak ez dira ados jartzen Udal liburutegiaren kokapen berriari buruz.

Argazkia: Inmauri Obegi

MOKO

mh

KASKOA EROSI DUT!
ORAIN BABESTUA
NAGO!



ARRAZOIA DUZU! AUTO
GIDARIAK BURUA OSO-
OSORIK ATERA DIZU!

